



Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea



EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN
BATASUNeko KIROL
TARTEKARITZAREN KODEA





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

AURKIBIDEA

Orrialdea

I.TITULUA- XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua- Kirol Arbitrajea.....
2. Artikulua- Arbitrajea erabakitzeko arauak.....
3. Artikulua- Arbitroen hitzarmena.....

II.TITULUA- KIROI ARBITRAJEKO EUSKAL EPAIMAHAIA.

I.Kapitulua- Xedapen orokorrak.

4. Artikulua- Kontzeptua
5. Artikulua- Egoitza
6. Artikulua- Organoak

II.Kapitulua- Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazlea.

7. Artikulua- Eraketa
8. Artikulua- Eskumenak
9. Artikulua- Funtzionamendua.

III.Kapitulua- Arbitraje-Gorteak.

10. Artikulua- Eginkizunak.....
11. Artikulua- Arbitroak.....
12. Artikulua- Arbitraje-gorte bat osatzen duten arbitroen abstentzioa eta ezespena.....
13. Artikulua- Arbitro-Gorteen Idazkaria

III.TITULUA- ARBITRAJE-PROZEDURA.

I.Kapitulua- Araua orokorrak.

14. Artikulua- Funtsezko oinarriak.....
15. Artikulua- Arbitraje-hizkuntza
16. Artikulua- Alderdiei emandako laguntza
17. Artikulua- Jakinarazpenak eta komunikazioak
18. Artikulua- Epeak
19. Artikulua- Kautelazko eta behin-behineko neurriak
20. Artikulua- Konfidentzialtasuna.....

II.Kapitulua- Arbitraje-prozedura.

21. Artikulua- Arbitraje-errekerimendua
22. Artikulua- Arbitrajearen ezarpena
23. Artikulua- Eskariari emandako erantzuna.....
24. Artikulua- Arbitrajeari aurka egitea.....
25. Artikulua- Hirugarrenen parte hartzea
26. Artikulua- Arbitraje-Gortearen eraketa.....





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

- 27. Artikulua- Arbitrajearen hasiera
- 28. Artikulua- Kontziliazioa
- 29. Artikulua- Prozedura arruntaren faseak.....
- 30. Artikulua- Idatzizko agindua
- 31. Artikulua- Ahozko agindua
- 32. Artikulua- Arbitraje-epaiak agindutako froga-jarduketak
- 33. Artikulua- Prozedura bizkortua.....
- 34. Artikulua- Fondoari aplikatu ahal zaizkion arauak

III. Kapitulua- Laudoa.

- 35. Artikulua- Emateko epea
- 36. Artikulua- Fondo eta formako baldintzak
- 37. Artikulua- Ondorioak.....
- 38. Artikulua- Laudoen deuseztapena
- 39. Artikulua- Laudoen betearazpena: nahitakoa eta nahitaezkoa
- 40. Artikulua- Interpretatzeko eskaera
- 41. Artikulua- Interpretazioaren ebazpena.....

IV. Kapitulua- Kostuak.

- 42. Artikulua- Arbitrajearen prozeduraren kostuak

XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Lehena.- Arau osagarriak.....
- Bigarrena.- Kodigoaren aldaketa





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

I.TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua- Kirol Arbitrajea.

1. Pertsona natural zein juridikoei, aurrez hitzarmena eginda, sortu diren edo sor daitezkeen dudazko kontuak arbitro baten edo zenbaiten erabakipean uzteko ahalmena ematen dien sistema da arbitrajea, eta ahalmen hori eskubidearen arabera izango da.
2. Arbitrajea kirol arlokoa da, kirola egitean sortzen diren gatazkak, diru-interesengatik sortutako auziak edo kirola egitean sortutako beste zenbait, edo beste kirol jardueretan sortzen diren gatazkak arbitroen erabakipean uzten badira, gatazka haiek alderdiek libreki erabaki baditzaizkete.
3. Kirol arbitraje sistema honek oinarria du Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legean, eta Euskal Herriko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean. Baita, Euskal Kirol Federazioen Batasuneko estatutuetan bertan ere.
4. Euskal Kirol Federazioen Batasunak eskainitako kirol-arbitrajeko zerbitzua kode honetan aurreikusitakoaren arabera zuzenduko da.

2. Artikulua- Arbitrajea erabakitzeko arauak

1. Arbitroek erabakiko dute auzia, baina dakitenez eta ulertzen dutenez, alderdiek izango dute aukeratzeko eskubidea edo ekitatea.
2. Alderdiek ekitatezko arbitrajea aukeratzeko ez duten kasuan, arbitroek izango dute erabakitzeko eskubidea.

3. Artikulua- Arbitroen hitzarmena

1. Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kirol arloan auziren bat arbitrajearen erabakipean utzi nahi duen pertsona natural zein juridikoak, hitzarmenaren bidez eskatu ahal izango diote Euskal Kirol Federazioen Batasuneko kirol arbitrajearen zerbitzuari aipatu arbitrajearen administrazioa, eta arbitroen izendatzea. Euskal Kirol Federazioen Batasunak halaber, alderdien enkargua onartzen duenetik arbitrajearen administrazioa egin beharko du.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

2. Arbitroen hitzarmenak hitzartutakoa betetzera beharko ditu alderdiak, eta arbitrajepean dauden auzi kontuak ezagutu nahi dituzten Epaille eta Auzitegien aurrean, salbuespen gisa, hitzarmena eskatzeko eskumena emango die. Halere ere, alderdiak ados badaude hitzartutako arbitrajeari uko egin ahal izango diote, auzibidea libre geratuz. Nolanahi ere, uko egiten diotela ulertuko da, alderdietako edozeinek jarritako eske baten aurrean, demandatua izan den alderdiak, epaian agertu eta gero arbitraje-hitzarmenetik eratorritako salbuespen egokia proposatzea baino ez den edozein prozesu-jarduera egiten badu.

3. Arbitraje-hitzarmenak adierazi beharko du alderdien borondate nabaria auzi jakin bat edo erlazio juridiko mugatu batetik eratorritako guztiak (kontratuzkoak izan ala ez izan), arbitroen erabakipean jartzeko, kirol-arbitrajeko kode honen ezartzea eta arbitroek hartutako erabakia betetzeko beharra adieraztea.

4. Arbitraje-hitzarmena idatziz gauzatu beharko da, kontratu nagusi bati erantsitako klausula gisa, edo kontratuaren akordio independente baten bidez. Akordioa idatziz formalizatu dela ulertuko da, ez bakarrik dokumentu batean jasota egoten bada baizik eta gutun-truke, telegrama, telex, fax edo beste edozein bitartekoetan alderdiek Kode honetan agertzen den kirol arbitrajearen menpean egoteko borondatea azaltzen badute. Aipatu baldintza beteko da hitzarmena euskarri elektronikoan, optikoan edo beste motatakoetan kontsultatu ahal bada. Arbitraje-hitzarmenari erantsita dagoen kontratu nagusia baliogabetzen bada, ez du zertan hitzarmenaren baliogabetasuna ekarriko, alderdiek bere baliotasuna mantentzek borondatea agertzen badute.

5. Arbitroen hitzarmena, eta beraz arbitraje-zerbitzu honen mendean jartzea, sor daiteke:

- a) Arbitraje-klausula bat duen kontratu bati esker.
- b) Auziaren planteamendua baino geroago hitzartutako dokumentu independente bati esker.
- c) Kirol Arbitrajetik legalki baztertuta ez dauden diziplinazko gaiei buruzko Federazio, Elkarte edo beste erakunde baten Estatutu edo Arautegiei esker, aipatu Estatutu edo Arautegiek aipatutako arbitrajera orokorrean, edo Euskal Kirol Federazioen Batasunekora bereziki, joateko aukera aurreikusten dutenean.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea



II.TITULUA KIROI ARBITRAJEKO EUSKAL EPAIMAHAIA

I.Kapitulua Xedapen orokorrak

4. Artikulua- Kontzeptua

Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaia, Euskal Kirol Federazioen Batasunak eskaintako zerbitzua da, eta bere xedea da kirol esparruan sortzen diren eta alderdiek jakinarazten dieten auzien judizioz kanpoko ebazpena egitea.

5. Artikulua- Egoitza.

Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren egoitza, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren egoitza sozialeko lokaletan egongo da. Hala ere, baldintzek frogatzen badute, Batzorde Betearazleak edo Arbitraje-Gorteak aukeratu ahal izango dute arbitraje-prozedura osoa edo jarduera jakin bat garatzeko lekua, alderdiekin kontsultatu eta gero.

6. Artikulua- Organoak.

Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaia osatzen dute ondorengo organoek:

- a) Kudeaketa eta administraziorako organoa, Batzorde Betearazlea deitzen zaiona. Bere eginkizuna da kirol arloko auziak arbitraje bidez konpontzea sustatzea, eta kirol arbitrajearen zerbitzuaren independentzia eta alderdien eskubideak babestea.
- b) Auziak ebazten dituen organoa, Arbitraje-Gorteek osatzen dutena. Bere eginkizuna da kirol esparruan sor daitezkeen auziak arbitraje bidez ebazten saiatzea.

II.Kapitulua Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazlea

7. Artikulua- Eraketa.

1. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazlea 5 kidek osatzen dute. Haiak prestakuntza juridiko nahikoa duten edo kirol arloan ospetsuak diren pertsonak izan daitezke, eta Euskal Kirol Federazioen Batasunak izendatuko ditu.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

2. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleko kideak lau urtetarako izendatuko dira, eta aldi hori berritu ahalko dute. Izendatuak direnean, kide bakoitzak adierazpen bat izenpetu beharko du, eta han bere eginkizuna objektibotasunez, independentziarekin eta konfidentziasunez beteko duelako konpromisoa hartuko du.
3. Batzorde Betearazlearen Presidentea bere kideen artean izendatuko du Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Zuzendari Batzordeak.
4. Batzorde Betearazlearen kideak ezin dira Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiak dituen arbitroen zerrendan agertu, ezta kode honek arautzen duen arbitrajepean auziren bat jartzen duten alderdien aholkulariak edo ordezkariak izan.
5. Batzorde Betearazleko kide batek dimitituko balu, edo hil egingo balitz edo aipatu organoak hautemandako beste edozein arrazoigatik bere eginkizunak betetzeko ezgaitua egongo balitz, ordezkaria izango da bere ordezkapena egitera bultzatu zuten egoerak gertatu zirenetik hasita.

8. Artikulua- Eskumenak

Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak honako eginkizunak beteko ditu:

- a) Euskal Kirol Federazioen Batasunari Kode honetan egon litezkeen balizko aldaketak proposatzea, haien onspena egiteko.
- b) Bere kideen artean Presidentea ordezkatzeko duen Presidenteordea hautatzea.
- c) Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiko arbitroen zerrendan sartu behar diren pertsonak izendatzea.
- d) Arbitroen abstentzioari, ezespenerari, eta ezeztatzeari buruzko gaietan ebaztea.
- e) Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiko Idazkaria izendatzea.
- f) Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Zuzendaritza Batzordeari, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren barneko araudi finantzarioa proposatzea, aipatu erakundeko Batzar Orokorrak geroko onspena egiteko.
- g) Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaia kudeatzea. Horren ondorioz:
 - Bere funtzionamendurako dituen fondoak jaso eta kudeatuko ditu.
 - Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren urteko aurrekontua proposatuko du, Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Zuzendari Batzordeak onartu dezan.
 - Epaimahaiaren kontuak egingo ditu, eta Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Batzar Orokorrak onartu beharko ditu.
- h) Egokia baderitzo, Euskal Kirol Federazioen Batasunari proposatuko dio laguntza-fondo bat ezartzea, arbitrajeko sarrera errazteko.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

- i) Alderdien eskubidearen babesa bermatzeko egokiak deritzoten neurriak hartzea, arbitroen independentzia bermatzeko, eta arbitrajea erabiliz, kirol arloari dagozkien auzien konpontzea sustatzeko.
- j) Kode honek esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzea.

9. Artikulua- Funtzionamendua.

1. Batzorde Betearazlea batzartuko da Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiko jarduerak eskatzen duen bakoitzean, eta gutxienez urtean behin izango da, ekitaldi bakoitzaren azken hiruhilekoaren barnean.

2. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Idazkariak egingo du Batzorde Betearazlearen saiotarako deia, Presidenteak edo aipatu organoaren kideen erdiak baino gehiagok eskatuta. Deialdian gai-zerrenda azalduko da, eta baita helduko diren gaiei buruzko dokumentazioa ere.

3. Batzorde Betearazlea osatua dagoela ulertuko da, gutxienez, batzarrera bere kideren erdia eta bat joaten bada, edo haiek ezean, Presidenteordea. Batzorde Betearazleko kideek ezin izango dute bere ordezkatzeara eskuordetu.

4. Batzorde Betearazlearen erabakiak batzarretan hartuko dira, hautesleen gehiengo soilak aldeko botoa ematen duenean. Botoetan berdinketa egongo balitz, Presidenteak edo Presidenteordeak emandako boboa nagusituko da, edo haiek ezean, bere ordezkoarena.

5. Euskal Kirol Federazioen Batasunari kodigo hau eta barneko beste araudi batzuk aldatzeko proposatzeko, Batzorde Betearazleko kideen 2/3en gehiengoaren aldeko botoa beharrezkoa izango da.

6. Batzorde Betearazlearen Idazkariak hitza baina botorik ez du izango, eta Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaia izango da bilera amaituko duena.

7. Batzorde Betearazleko kide bakoitza batzarretan edo erabakietan parte hartzeari uko egin beharko dio honako kasuetan:

- a) Aipatu batzar edo erabakiek, eragina badute alderdietako bat aipatu kidea ere dagoen erakunde edo elkarteko kontuei buruzko arbitrajea.
- b) Kide hori, alderdietako bat edo bere abokatuetakoa bat auzian parte hartzen duen elkarte, abokatu-langela edo bulego baten kidea bada.
- c) Batzorde Betearazleko kidearen eta alderdietako baten artean ahaidetasun, dependentzia, adiskidetasun edo areriotasun erlazioa dagoenean, eta arbitraje jakin batean alderdikeria egon dela susmatzeko bidea eman badu.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

8. Abstentzia borondatezkoa ez balitz, Batzorde Betearazlearen beraren erabakia aintzat hartuko da.

9. Abstenitu den kideak ez du parte hartuko arbitrajeari buruzko deliberamenduetan, ezyta arbitraje horri buruzko informazioa jasoko ere.

III. Kapitulu Arbitraje-Gorteak.

10. Artikulua- Eginkizunak.

Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiak, Arbitraje-Gorteak osatuko ditu. Haiek eman beharko dituzte, beren esku utzi eta gero, kirol esparruan sor daitezkeen gatazkei buruzko laudo edo ebazpenak.

11. Artikulua- Arbitroak

1. Arbitraje-Gorte desberdinak osatuko duten arbitroen zerrendan agertzen direnek, izendatuak izateko eskatzen diren baldintza beharko dituzte, eta gaitasun hori izango dute lau urteko epe berriztagarri batean.

2. Zerrendan gehienez 20 arbitro egon daitezke, eta haietatik, gutxienez %50 jarduneko abokatu izan beharko dira.

3. Arbitroak izan daitezke baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikook:

- a) Izendatua izaten denetik aurrera, bere eskubide zibilen jabe bada erabat.
- b) Jarduneko Epaileak, Magistratuak, Fiskalak edo Notarioak ez izatea.
- c) Bere betekizuna ezarritako epearen edo bere luzapenaren barruan ez betetzea, ezta aurreko arbitraje-funtzioen jardunean epailearen aurrean aitortutako erantzukizunean erortzea ere.
- d) Bere funtzioak objektibotasunez eta independentziaz, eta kodigo honetan aurreikusitako arauak beteko dituela konpromisoa aitortzen duen adierazpena izenpetzea. Aipatu adierazpena arbitro-zerrendan sartzearekin batera izenpetu beharko du.
- e) Eginkizun publikoetan aritzeko edozein motako ezintasuna ez izatea.
- f) Gatazken ebazpenean esperientzia izatea. Zerrendan agertzen diren jarduneko abokatuen kasuan, ezinbestekoa izango da egoera hori mantentzea.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

4. Epaiaren arbitroen zerrenda Batzorde Betearazleak egingo eta hautatuko du.
5. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren arbitroen zerrenda eta haren aldaketak publikoak izango dira, eta Euskal Kirol Federazioen Batasunak argitaratuko ditu ororen ezagutzarako.
6. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren zerrendan dauden arbitroek, parte hartzen duten gaietan konfidentzialtasuna mantendu beharko dute.
7. Batzorde Betearazleak zerrendatik kanpo edozein arbitro utzi ahal izango du kasu hauetan:
 - a) Arbitroak dimititzen badu.
 - b) Bere jardunak egin nahi ez baditu.
 - c) Batzordearen ustez jardunean aritzeko ezintasun fisikorik badu.Kasu hauetan, arbitrajeak aurretiko entzutea egin ondoren arrazoiz ebatziko du Batzorde Betearazleak.
8. Aurreko zenbakiko kanporatze kasuetan, edo heriotza edo beste edozein arrazoigatik egindako baliogabetze kasuetan, arbitroa ordezkaturiko da zerrendan geratzen zaion agintaldia bukatu arte.

12. Artikulua- Arbitraje-epaia bat osatzen duten arbitroen abstentzioa eta ezespena.

1. Arbitraje-Gorte baterako izendatzen diren arbitroak abstenitu beharko dira, eta abstentziorik ezean, ezetsiak izan ahalko dira, Botere Judizialaren ekainaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 219. artikulua xedatutako abstentzio edo ezespen arrazoiren batean erortzen badira.
2. Arbitroa izateko proposatzen den pertsonak, jakinarazi beharko ditu, bere inpartzialtasunari eta independentziari buruz zalantza justifikatuak sortzeko bidea ematen dituzten inguruabar guztiak. Arbitroak, halaber, izendatua izaten denetik aurrera atzerapenik gabe jakinaraziko du behingoan gertatutako edozein inguruabar.
3. Parte hartzen duten alderdiek zein auzian interes legitimoa duen hirugarren batek, izendatutako arbitroren baten ezespena eskatu ahal izango dute, artikulua honen lehenengo atalak xedatzen duen legezko aginduan aipatzen diren kausek kalte egin dietela uste badute.
4. Batzorde Betearazleak erabakiko du abstentzioa edo ezespena onartuko duenentz, eta bere erabakiaren aurka ezin izango da helegitea aurkeztu.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

5. Abstenitu edo ezetsi den arbitroa arbitroen zerrendatik izendatutako beste batek ordezkatu du. Eta izendatzea egiteko ordezkaturako arbitroa izendatu zeneko prozedura bere erabiliko da. Ordezkatutako arbitroak ez du jasoko abstentzioa edo ezespena gertatu deneko arbitrajeari buruzko informaziorik. Behin arbitroa izendatuta egon, horrek eta Epaian ordezkatuak izan ez diren arbitroek erabakiko dute egindako jardunak errepikatu behar direnentz, alderdiek aurretiko entzutea egin eta gero.

13. Artikulua- Arbitraje-Gorteen Idazkaria

1. Arbitraje Gorteen idazkariak, Epaiak egindako bileretan parte hartu ahal izango du, eta hitza baina botoa ez emateko aukera izango du.

2. Arbitraje Gorte bakoitzaren idazkaria Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaikoa ere izango da.





III. TITULUA ARBITRAJE-PROZEDURA

I KAPITULUA ARAU OROKORRAK

14. Artikulua- Funtsezko oinarriak.

1. Euskal Herriko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak eta Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik, arbitraje-prozedura bideratuko da alderdiek entzute, kontraesan eta berdintasun printzipioak kontuan hartuz.
2. Arbitraje prozeduran kode honetan ezarritako legeek aginduko dute, eta legerik ezean, alderdien nahiek eta arbitroek hartutako erabakiek aginduko dute.

15. Artikulua- Arbitraje-hizkuntza

1. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaian erabiliko diren hizkuntzak euskara eta gaztelera izango dira.
2. Alderdiek libreki erabaki ahalko dute arbitrajearen hizkuntza. Akordiorik ezean, arbitroek erabakiko dute kasuaren egoerak aztertu eta gero. Alderdien akordioan edo arbitroen erabakian beste gauzaren bat aurreikusi ezean, ezarritako hizkuntza edo hizkuntzak erabiliko dira: alderdien idatzizkoetan, entzuteetan edo arbitroen jakinarazpenetan.
3. Arbitroek, alderdietako baten aurkaritzarik ezean, agindu ahal izango du aipatu arbitraje-prozeduran egindako edozein jarduerako edo emandako edozein dokumentuko hizkuntza beste batera itzultzeko.

16. Artikulua- Alderdien etortzea

Alderdiak bakarrik edo diharduen abokatu baten laguntzarekin jardungo dira. Azken kasu honetan, alderdiek idatziz ziurtatuko diote Arbitraje-Gorteari abokatuaren laguntza, horren identitatea emanez.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

17. Artikulua- Jakinarazpenak eta komunikazioak

1. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiko Idazkariak egingo ditu alderdiei zuzendutako jakinarazpen zein komunikazioak. Haien arbitrajearen errekerimenduan agertzen den helbidera edo ondoren idatziz adierazitako beste edozein helbidera bidaliko dira, eskaerari erantzuna emateko.

Edozein helbide aldaketak Idazkaritzan hartzen denetik balioko du.

2. Batzorde Betearazlearenak edo Arbitraje Gortearenak diren arbitraje-laudoak, prozesuko aginduak eta Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren erabaki edo jakinarazpen oro, hartzaileak jaso duela ziurtatzen duen bitarteko baten bidez jakinaraziko dira.

3. Alderdietako batek helbide bat baino gehiago badu, arbitraje hitzarmenarekin erlazio estuagoa duena erabiliko da; eta alderdi batek ezein helbiderik ez badu, ohiko helbidea erabiliko da.

4. Jakinarazpen edo komunikazio oro jasotzat emango da, hartzaileari zuzenean eman zaion edo eman den egunean.

5. Arbitraje-Gorteren bati edo Epaimahaiari zuzendutako alderdien idazkiak (arbitrajearen eskaera, hirugarrenen baten parte-hartzearen eskaera, eskariari emandako erantzuna, etab.) Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiari igorriko zaizkio, auzian parte hartzen duen alderdi eta arbitro beste kopiarekin batera, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren artxiboan jasota geratzeko.

18. Artikulua- Epeak.

1. Alderdiek eperik jarri ez badute, arbitroek erabaki beharko dute eztabaida, hurrengo sei hilabeteren buruan, Arbitraje Epaia sortzen deneko hurrengo egunetik hasita zenbatuz. Alderdien aurkako akordioa egiten bada, arbitroek epe hori luzatu ahal izango dute erabaki motibatuaren bidez.

2. Epea bukatzen bada eta behin betiko laudoa eman ez bada, arbitraje-jarduerak amaitutzat emango dira eta arbitroak kargua utzi beharko dute. Hala ere, horrek ez du eraginik izango arbitraje-hitzarmenaren eraginkortasunean, arbitroak eroritako erantzukizunari kalterik egin gabe.

3. Alderdiek auziaren ebazpena egiteko artikulua honen lehen idatz-zatiak xedatutako baino epe txikiagoren bat ezarriko balukete, arbitroek izendapena ez onartzeko gaitasuna izango dute laudoa emateko epe txikiegiarengatik, gaiaren konplexutasuna ikusita.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

Batzorde Betearazleak erabakiko du emandako ezetza nahikorik oinarrituta dagoen, eta hala izanez gero, arbitroak ordezkatu baino lehen, Batzorde Betearazlearen Presidenteak alderdiei epea luzatzeko eskatuko die. Arbitroek alderdiek proposatutako epe berria onartzen badute, ez dira ordezkatu.

4. Alderdi batek kode honek ezarritako eperen bat betetzen ez badu, kudeatzeko eskubidea galduko du.

5. Kodigo honetan ezarritako epeak, jakinarazpena edo komunikazioa heltzen den hurrengo egunetik zenbatuko dira. Epearen azken eguna jaieguna balitz, hurrengo lanegunera arte luzatuko da. Epe baten barruan idazki bat aurkeztu behar denean, izapidea beteta dagoela ulertuko da idazkia epearen barruan bidali bada, nahiz eta beranduago jaso.

6. Epeak jartzerakoan egun naturalak hartuko dira kontuan.

19. Artikulua- Kautelazko eta behin-behineko neurriak

1. Arbitrajeko jardunak baino lehen edo bere bideratzearen zehar, alderdiek eska diezaiokete epaimahaiari zuhurtasunezko neurriak hartzeko.

2. Arbitrajeko eskaera aurkeztu baino lehen, alderdiek ezin izango dute aipatu instantziaren aurrean, zuhurtasunezko ezta behin-behineko neurriak ere eskatu.

3. Batzorde Betearazleak, Arbitraje-epaia sortu eta haren espedientea bidali baino lehen, eta Arbitraje-Gorteak gero, alderdietako batek eskatzen badie zuhurtasunezko zein behin-behineko neurriak akordatu ahal izango dituzte. Alderdiek arbitraje kode hau auzitan jartzen badute, ulertuko da aipatu behin-behineko zein zuhurtasunezko neurriak jurisdikzio arruntari eskatzeari uko egiten diotela.

4. Alderdi batek behin-behineko edo zuhurtasunezko neurriak eskatzen baditu, Batzorde Betearazleak edo Arbitraje-Gorteak, segun eta nori dagokion, beste alderdiari hamar eguneko epean agertzeko eskatuko diote. Urgentzia handia badago, eskaera aurkeztu ondoren erabakia har dezakete, aurkako alderdiak gero jarrera har izango duela baieztatuz.

5. Behin-behineko eta zuhurtasunezko neurriak erabaki daitezke eskatzaileak ematen dituen bermeen mendean.

20. Artikulua- Konfidentzialtasuna





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea



1. Prozedura konfidentziala izango da.
2. Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaia osatzen duten, alderdi, arbitro eta beste kideek, auziarekin edo prozedurarekin zerikusia dituzten gertaerak edo bestelako informazioak hirugarrenei ez emateko konpromisoa hartzen dute.
3. Laudoak ez dira argitaratuko, aipatutakoek esaten ez badute edo alderdi guztiek onartzen badute.

II. KAPITULUA ARBITRAJE-PROZEDURA

21. Artikulua- Arbitraje-errekerimendua.

1. Arbitrajearen aurka helegitea aurkeztu nahi duenak Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiari zuzendutako eskaera bat aurkeztu beharko du. Alderdi hauek izan beharko ditu:

- a) Gertaeren deskribapena eta zuzenbideko oinarriak. Haiekin batera, Epaitegian jartzen diren auzien zerrenda agertu beharko da haien ebazpena egiteko.
- b) Arbitroen hitzarmenaren kopia, edo arbitrajeko klausula kode honen arabera ezartzen duen kontratuaren kopia, edo kontraturik ezean, alderdien artean arbitroen hitzarmen bat badagoela bermatzen duen edozein agiri.
- c) Erabilgarriak diren xehetasun guztiak, honakoak zehazteko:
 - Arbitraje-Gortea osatu behar duten arbitro kopurua.
 - Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiko zerrendatik eskatzaileak aukeratu ahal dituen arbitro edo arbitroen izena.
 - Auziaren zenbatekoa zehaztu ahal bada.
 - Ezarri ahal diren eskubide edo ekitate-erregelak, auzia ebazteko.

2. Errekerimenduarekin batera, aurkezten duen alderdiak Epaimahaian kontsignatu beharko ditu prozeduraren kostuei buruzko 41.1º artikulua xedatutako zenbatekoa, eta aipatu manamenduak ezarritako ondorioekin. Azkenean arbitrajea ez bada gauzatzen, Batzorde Betearazleak edo Arbitraje-Gortek kendu ahal izango dute ezarritako zenbatekotik aipatu organoek egindako bitartekotasunetatik eratorritako diru kopurua.

22. Artikulua- Arbitrajearen ezarpena





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

1. Arbitrajeko eskeak ez badu nabarmen begiesten kode honetan agertzen diren arbitraje-hitzarmena begiesten, auzia Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren aurrean jartzeko, Idazkariak hartuko ditu beharrezkoak diren neurriak arbitrajea ezartzeko.

2. Arbitrajearen ezartzea burutzeko, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiko Idazkariak bideratuko ditu alderdiei egin beharreko jakinarazpen egokiak. Horretarako, auzian dauden alderdiei zabalduko die eskea, eta hari erantzuteko eta Kirol Arbitrajeko Euskal Mahaiko zerrendatik eurek aukeratu dituzten arbitroen izena eta zenbakia adierazteko epea ezarriko die.

23. Artikulua- Eskeari emandako erantzuna.

Eskeari emandako erantzunak ondorengo alderdiak izan behar ditu:

- a) Arbitrajeari egindako edozein aurkaritza arrazoi hauengatik: arbitroen eskumen objektibo falta, arbitroen hitzarmenaren arabera; arbitroen hitzarmenik ez egotea, baliogabea izatea edo iraungita egotea.
- b) Alderdi demandatuarentzat interesa duen edozein errekonbentzio.
- c) Auzian hartutako jarrera oinarritzen dituzten arrazoiak deskribapen laburra.
- d) Alderdi demandatuak eskean arbitrajea egin diren gaietan dituen uziak, eta ebentualki errekonbentzioan.

24. Artikulua- Arbitrajeari aurka egitea.

1. Arbitroek erabaki beharko dute jarraian arbitrajeari egingo zaion aurkaritzaren planteamendua, arbitroen eskumen objektiboaren faltan, edo arbitraje-hitzarmenaren existentzia ezan, baliogabetasunean, edo iraungipean oinarrituta dagoena. Arbitroek egoera haietako edozein aintzat hartzen badu, jurisdikzio-organoei sarrera libre izango dute, arbitraje bidean bestelako jarduna edo helegiterik egiteko aukerarik gabe. Arbitroek gaitzesten badute, aurka egin ahal izango zaio, kasu honetan, arbitraje laudoaren baliogabetzea eskatuz, Arbitrajeko, abenduaren 23ko 60/2003 Legeak eta Kode honen 38.1º artikulua xedatutakoaren arabera.

2. Nolanahi ere, jarduneko arbitroek atzeman ahal izango dute euren eskumen objektiboaren berezko falta, nahiz eta alderdiek ez aipatu.

25. Artikulua- Hirugarrenen parte hartzea

1. Hirugarrenek parte ahal izango dute arbitrajean arbitroen hitzarmenarekin erlazioa badute bakarrik, edo eurak eta gainerako alderdiak idatziz baimena ematen badute.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

2. Demandatua edo demandatuek nahi badute hirugarren bat arbitrajean parte hartzea, horrela adierazi behar du erantzunean. Idazkariak ale hori igorriko dio parte hartzea eskatzen zaion pertsonari, eta epe bat ezarriko dio horren aurrean jarrera hartzeko eta erantzun bat emateko, Kode honen 23. artikulua xedatutakoaren arabera. Halaber, alderdi demandatuak hirugarrenaren parte hartzearen aurrean jarrera hartzeko epea ere ezarriko du.

3. Hirugarren batek alderdi bezala parte hartu nahi badu arbitrajean, Epaimahaiari bere arrazoiak azaltzen dituen eskaera bat egin beharko dio, erantzuna emateko ezarritako epearen barruan. Eskaerak, kode honen 21. artikulua xedatutakoarekin bat datorren arbitraje errekerimendu batean agertu beharreko gaiak izango ditu. Idazkariak eskaera honen ale bat zabalduko die alderdiei, eta epe bat ezarriko die hirugarren baten parte hartzearen aurrera jarrera hartzeko.

4. Artikulu honen aurreko zenbakien arabera epeak bukatzean, Kirol-Arbitraje Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak erabakiko du hirugarren baten parte hartzeari buruz, kontuan izanik arbitroen hitzarmenaren edukia. Erabaki horrek ez du Arbitraje-Gorteak gai honetan hartutako erabakia aurretik juzgatzen.

5. Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak onartuko balu, hasiera batean, hirugarren baten parte hartzea, Arbitraje-Gortea osatuko da alderdi guztiek aukeratutako pertsona eta arbitroen kopurua kontuan izanik. Alderdien artean adostasunik ez badago, Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak izendatuko du Arbitraje-epaiaren Presidente nagusia den arbitroa, Arbitraje-Gortea osatzen duten arbitroak ados jarri ez badira betiere.

6. Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazlearen erabakia edozein izan, bere erabakiaren aurka ezin da helegitea aurkeztu.

26. Artikulua- Arbitraje-Gorteen eraketa

1. Arbitraje-Gorte bakoitza arbitro batek edo hiruk osatzen dute, arbitroen hitzarmenaren arabera. Arbitroen hitzarmenak ez badu zehazten arbitro-kopurua, Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak erabakiko du alderdi hori, auziaren zenbatekoa eta konplexutasuna kontuan hartuz.

2. Alderdiek libreki adostu ahal izango dute arbitroen izendatzea egiteko prozedura, berdintasunaren printzipioa hausten ez bada betiere. Adostasunik ezean, ondorengo arauak ezarriko dira:





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

- a) Arbitro bakarreko arbitrajea, alderdiek aho batez izendatuko dute, eta adostasunik ezean Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak izendatuko du.
- b) Hiru arbitroko arbitrajea, alderdi bakoitzak bat izendatuko du, eta hautatutako biek hirugarrena izendatuko dute. Azken hori Arbitraje-Gortearen Presidentea izango da. Alderdi batek ez badu errekerimendua jaso eta hurrengo hogeitau egunetan arbitroa izendatzen, Batzorde Betearazleak izendatuko du. Gauza bera egingo da izendatutako arbitroak ez badira ados jartzen hirugarren arbitroaren izendapenean, hogeitau egunetan azken onarpenetik hasita.
- c) Eskatzaile edo demandatu ugari badaude, lehenengoek arbitro bat izendatuko dute eta bigarrenek beste bat. Eskatzaileak edo demandatuak izendatu behar duten arbitroan ados jartzen ez badira, Batzorde Betearazleak zozketa egingo du biek aipatutako arbitroen artean.

2. Alderdiak jakinaren egongo dira izendatu behar dituzten arbitroak jarduneko abokatuak izan behar direla, zuzenbide-arbitrajea balitz.

3. Alderdiek adostutako prozeduraren bidez ezin badira arbitroak izendatu, edozein alderdik eskatu ahal izango dio Batzorde Betearazleari arbitroak izendatzeko, edo hala ez bada, hori egiteko hartu behar diren neurriak hartzeko.

4. Alderdiek edo Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiak aho batez aukeratzen dituzten arbitroei, bere izendapena jakinaraziko zaizkie, eta bakoitzak hamabost egun naturaleko epea izango du jakinarazpena jasotzen duenetik hasita, onarpena idatziz adierazteko. Izendapena ez dutela onartzen ulertuko da, aipatutako epean ez badiote onarpena adierazten Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiari.

5. Arbitroen onarpenarekin eta Epaiaren Presidentearen hautaketarekin, Epai osatua egongo da eta Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak osaketa horren berri emango die kideei jakinarazpen egokia bidaliz. Ezin izango da baieztatu arbitroren bat zerrendatik kanpo uzten bada, hiltzen bada, edo abstenitzen edo errefusatzen badu. Kasu horietan, arbitroa ordezkatzeko da eta horretarako lehen izendapenean jarraitutako arauak erabiliko dira.

6. Aurreko alderdiak betez gero, espediente bidaliko dio Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiak Arbitraje-Gorteari.

27. Artikulua- Arbitrajearen hasiera





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

Alderdiek beste gauza bat adostu ez duten kasuan, demandatuak eztabaida arbitrajean jartzeko errekerimendua jasotzen dueneko eguna hartuko da arbitrajearen hasieratzat, kode honen 18. artikulua xedatutako epearen kontaketa kontuan hartuz.

28. Artikulua- Kontziliazioa.

1. Arbitraje-Gortea saiatuko da beti auzia kontziliazioaren bidetik konpontzen.
2. Kontziliaziotik eratorritako transakzio oro, arbitraje-laudoan jar daiteke alderdien akordioaren ondorioz.

29. Artikulua- Prozedura arruntaren faseak.

Epaiaren aurreko prozedurak izango ditu:

- Idatzizko instrukzioa, Arbitraje-Gortek erabilgarria baderitzo.
- Ahozko instrukzioa.

30. Artikulua- Idatzizko instrukzioa.

1. Epaiak espedientea jasotzean, arbitroak, bakarra bada, edo Epaiaren Presidenteak, hiru badira, ezarriko dute idatzizko prozedura egiteko era. Idatzizko instrukzioak berekin izango ditu, hasiera batean, zenbait alegazio eta kontra-alegazio, eta arbitro bakarraren edo Epaiaren Presidentearen iritziz inguruabarrek eskatzen badute, erreplika eta duplika bat ere bai.
2. Alderdiek akordio zehatzik ez badute alegazio zein kontra alegazioetan, ezin izango dute eskean edo hari emandako erantzunean eskaera berririk egin. Ezein kasutan ezin izango da eskaera berririk egin erreplika edo duplika garaian.
3. Alderdiek aurkezten dituzten probak alegazio, kontra alegazio, erreplika, edo duplikan proposatu beharko dira. Aipatu faseetan proposatzen diren proba motak eta haien edukia aukeratuko da. Alderdiek aurkezten duten azken idatziaren ondoren, ezin izango da proba berririk proposatu, Arbitraje-Gortek ezohiko arrazoiengatik baimena ematen ez badu behintzat.

31. Artikulua- Ahozko instrukzioa.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

1. Idazkien trukea bukatzean, arbitro bakarrak edo Arbitraje-Gorteko Presidenteak ezarriko dute ahozko instrukzioa egiteko era, eta bereziki auzitegiaren data. Ahozko instrukziok auzitegia izango du, eta horretan zehar Arbitraje-Gortek entzungo die, besteak beste, alderdi, lekuko eta perituei, egongo balitz, baita auzilariak emandako azken argudiaketei ere. Demandatua izango da azkena hitza hartzen.
2. Arbitraje-Gorteko Presidenteak edo arbitro bakarrak zuzenduko dituzte eztabaidak, eta saiaturiko da laburrak izaten eta idazkien edukira mugatzea, haiek egokiak badira. Alderdiak ituna egiten ez badute, eztabaidak atek itxita izango dira.
3. Alderdiak, aipatu egintzan, idatzizko instrukzioan proposatu dituzten lekuko edo perituengana jotzeko aukera izango dute. Lekuko edo peritu baten azaltzea baino lehen, Epaiak pertsona honi egia handiki esateko eskatuko dio, eta lekukotza faltsua egiten badu jurisdikzio arruntaren aurrean salaketa jarriko zaiola ohartaraziko zaiou.
4. Ahozko ikustaldiaren ondoren, alderdiak ezin izango diote Arbitraje Gorteari idazki berriak bidali, hark agintzen ez badu behintzat.
5. Arbitraje prozeduraren ahozko instrukzioan gertatutako guztia aktan jasoko du Arbitraje-Epaiko Idazkariak, eta parte hartzen duten arbitroek eta alderdiak izenpetu beharko dute.

32. Artikulua- Arbitraje-Gortek agindutako froga-jarduketak

1. Alderdi bakoitzak bere idazkietan eskatu ahal izango dio Arbitraje-Gorteari, honek aurkako alderdiari, bere eskuetan dituen edo bere kontrolpean dauden frogak espedientean eransteko. Jarduketa hori eskatzeko, frogatu beharko du haiek existitzen direla, eta haien egokitasuna eztabaidatutako gaian.
2. Arbitraje-Gortek edozein momentuan, eta alderdien alegazioak osatzeko beharrezkoa baderitza, froga osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango du, lekukoak entzutea agindu ahal izango du, perituak izendatu zein haiei entzun, edo bestelako jarduketa eskatu ahal izango du instrukzio hobea egiteko.
3. Arbitraje-Gortek izendatutako peritua alderdiekiko independente izan eta egon beharko du, eta alderdiekiko independentzia estatusunean jartzen duen edozein inguruabarraren berri ematera behartuta egongo da. Arbitraje-Gortek berak, ezespenean eta perituen abstentzioan erabakia hartuko du, geroko helegiterik gabe.
4. Arbitraje-Gortek eskatu ahal izango du, berak burutu ezin dituen frogak egin behar diren lekuaren Lehen Auzialdiko Epailaren laguntza. Frogen burutzea idatziz eskatuko





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

da, eta Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen 8.2 artikulua xedatutakoarekin bat etorri gaizatu da.

33. Artikulua- Prozedura bizkortua.

Alderdien aurretiko akordioaren ondoren, Arbitraje-Gorteak prozedura bizkortuaren aurkako helegitea aurkeztu ahal izango du, eta horren ezaugarriak eta aurrera eramateko era idatziz emango dira, kapitulu honen aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera. Prozedura bizkortu hori, Arbitraje-Gorteak berak ezarri beharko du.

34. Artikulua- Fondoari aplikatu ahal zaizkion arauak.

1. Arbitraje-Gorteak laudoa emango du, ordenamendu juridikoaren arabera, eta egindako jarduketaren guztien agerian. Hala ere, alderdiek ekitatezko arbitrajea espreski aukeratzeko badute, Arbitraje-Gorteak laudoa eman ahal izango du arbitroen jakite eta ulertze leialaren arabera.
2. Alderdiek ekitatezko araua espreski aukeratzeko badute, prozedura malgutu ahal izango da, ondorengo zehaztasunak ezarriz:
 - a) Alderdiek aho batez prozedura bizkortua, ahozkoa nahitaez, proposatzeko aukera izatea.
 - b) Arbitraje-Gorteak baliagarriak deritzon frogako bitarteko guztiak onartuak izatea, eta ez bakarrik indarrean dagoen prozesuaren araudian xedatutakoak.
 - c) Frogen burutzea arau juridiko mugatu baten arabera ez egitea, baizik eta arbitroen zuzeneko sustapenaren arabera.
 - d) Arbitroen jarduketaren ararteko adiskidetzailena izatea, eta laudoa ematea bere jakite eta ulertze leialak gomendatzen duenaren arabera, alderdientzat ona eta bidezkoa bada.

III. KAPITULUA ARBITRAJE LAUDOA

35. Artikulua- Emateko epea.

1. Alderdiek ez badute ezartzen epe laburrago bat, Arbitraje-Gorteak laudoa eman beharko du gehienez sei hilabeteko epean, Arbitraje-Epaia behin-betiko osatzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera,





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea



edo hasieran ezarritako Arbitraje-Gortea osatuko duten arbitroen azken ordezkatzeara egiten den egunaren biharamunetik hasita.

2. Epe hau behin baino ezin izango da luzatu alderdiek aho batez erabaki badute, eta Arbitraje-Gorteari jakinaraziko zaio hasierako epea bukatu baino lehen.

3. Hasierako epea igarota, edo luzapena bere kasuan, laudoa eman ez bada arbitroen hitzarmena ez du ondorioz izango, eta beraz, auzibideak eztabaida planteatzeko aukera izango du.

4. Edozein momentuan, hasierako epean edo bere luzapenean, eta laudoa eman baino lehen, alderdiek espreski eta aho batez arbitrajeari uko egin ahalko diote, edo epe mugatu batez atzeratu.

36. Artikulua- Fondo eta formako baldintzak.

1. Arbitraje-laudoak, zein Arbitraje-Gortearen edozein akordio edo ebazpen, botoen gehiengoak erabakiko du. Berdinketa egoten bada Presidentearen botoa aginduko du.

2. Arbitraje-laudoa idatziz eman beharko da, eta gutxienez honakoa izan beharko du:

- a) Arbitroen eta alderdien egoera pertsonalak.
- b) Ematen den tokiaren izena eta data.
- c) Arbitrajean jarritako gaiak.
- d) Burututako frogen zerrenda laburra.
- e) Alderdien alegazioak.
- f) Arbitroen erabakia.

3. Laudoa arrazoizkoa izango da arbitroek erabakitzen dutenean auzia.

4. Arbitraje-laudoa arbitroek izenpetuko dute, eta bere aurkako iritzia eman ahalko dute. Arbitroren batek izenpetuko ez balu, ulertuko da gehiengoaren erabakiaren aldeko dela. Nolanahi ere, Arbitraje-Gortearen Presidentearen edo arbitro bakarraren izenpearekin nahiko izango da.

5. Laudoa protokoloan jaso ahalko da notarioaren aurrean. Alderdietako edozeinek, arbitroei eskatu ahal izango diote jakinarazpena egin baino lehen, laudoa protokoloan jasotzeko.

6. Arbitroek kostuei buruzko laudoa emango dute kode honen 42. artikulua xedatutako arauen arabera.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

37. Artikulua- Ondorioak

Arbitraje-laudoa, beharrezkoa bada protokoloan jasoa eta ondorengo artikulua xedatutako ezeztapenaren bidetik aurka egin ez zaiona, behin betikoa da eta betearazlea, epaitu den gauzak bezalako ondorioak sortzen dituelarik. Horren aurka helegitea aurkeztu ahal izango da, legeria judizialak epai irmoetarako ezarritakoaren arabera.

38. Artikulua- Laudoen deuseztapena.

1. Arbitraje-laudoa deuseztatu ahal izango da eskatzen duen alderdiak honakoa alegatzen eta frogatzen badu:

- a) arbitroen hitzarmena ez dela existitzen edo ez dela baliozkoa.
- b) arbitro baten izendatzeaz edo arbitraje-jarduketaz egoki jakinarazi ez zaiola, edo beste arrazoiaren batengatik bere eskubideak ezin izan dituela erabili.
- c) arbitroek bere erabakiaren menpean jarri ez diren gaietan erabakiak hartu dituztela.
- d) arbitroen izendatzea edo prozedura ez direla egokitu alderdien artean egindako akordiora, aipatu ituna aginte-arau baten aurkako ez bada, edo akordiorik ezean, arbitrajeko araudi erregulatzaileren xedapenetara egokitu ez dela.
- e) arbitroek arbitrajean jartzekoak ez diren gaietan erabakiak hartu dituztela.
- f) laudoa ordena publikoaren aurkakoa dela.

2. Deuseztapeneko helegitea edozein alderdik jarriko du laudoa eman deneko Probintzia Auzitegiari dagokion sekzio zibilean, eta laudoaren edo honen argitzearen jakinarazpen frogagarria egin den hurrengo sei egun baliodunen epean, alderdietako batek eskatzen badu.

3. Aipatu idazkian, argudiatutako deuseztatzearen arrazoiak edo arrazoiak babesten dituzten oinarriak azalduko dira, beharrezkoa eta egokia den froga proposatuz. Horiek batera, arbitroen hitzarmenaren frogagiriak eta jakinarazitako laudoa aurkeztuzko dira.

4. Deuseztatze-helegitearen izapidetze-prozedura, eta laudoaren aldeko zuhurtasunezko neurrien prozedura, arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen VII. Tituluan xedatutakoaren arabera izango dira.

39. Artikulua- Laudoen betearazpena: nahitakoa eta nahitaezkoa





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

1. Exekutagarriak izango dira, arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen VII. Tituluan xedatutakoaren arabera, kode honekin eta ordenamendu juridikoarekin bat datozen emandako laudoak.
2. Laudoa eraginkorra da alderdiei jakinarazten zaienetik. Kode honen 38.2 artikuluan ezarritako deuseztatze-helegitea jartzeko sei egun baliodunen epea igarota, laudoa nahita bete ez bada, eman den lekuaren Lehen Auzialdiko Epailearen aurrean lortu ahal izango da nahitaezko betearazpena.
3. Nahitaezko betearazpena lortzeko izapideak, epai irmoetarako ezarritakoak izango dira, artikuluko honen ondorengo ataletan dauden berezitasunekin, eta Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen 44 eta 45 artikuluen arabera.
4. Betearazpena eskatzen duen idazkiarekin batera ezinbestez erantsi beharko dira:
 - a) Arbitraje-lauoaren kopia eskuetsia.
 - b) Alderdien jakinarazpenaren egiaztagiriak.
 - c) Arbitroen hitzarmena.
 - d) Bere kasuan, deuseztatzeko errekurtsolari buruzko Probintzia Auzitegiaren epaile-ebazpenaren testigantza, errekurtsua egon bada.
5. Epaileak betearazpenaren eskaera eta aurkeztutako agiriak igorriko dizkio beste alderdiari, eta honek lau egun izango ditu deuseztatzeko errekurtsuaren dependentzia alegatzeko, oraindik ebatzi gabe badago eta betiere, alderdiak egoera hori egiaztatzen badu aurkaritzako idazkiaren bidez. Kasu honetan, Epaileak autoa emango eta betearazpena atzeratuko du Probintzia Auzitegiak ebazpena egin arte, edo laudoa deuseztatu arte.
6. Probintzia Auzitegiak deuseztatzeko errekurtsuaren ebazpenean deuseztatzea ukatzen badu, laudoaren betearazpenarekin jarraituko da. Probintzia Auzitegiak laudoaren deuseztatzea ebazten badu, eta hori egiaztatzen badu Lehen Auzialdiko Epaitegiaren autoetan agertzen den epai honen testigantzaren bidez, Epaileak autoa emango du arbitraje-lauoaren betearazpena ukatuz.
7. Artikulu honen aurreko bi ataletan aurreikusitakotik kanpo, Lehen Auzialdiko Epaileak autoa emango du laudoaren betearazpena agintzeko.
8. Artikulu honen 6. zenbakiak xedatzen duen deuseztatzeko autoaren, zein aurreko zenbakian agertzen den betearazpenaren agintzeko autoaren aurka ezin da helegiterik aurkeztu.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

III. KAPITULUA LAUDOEN INTERPRETAZIOA

40. Artikulua- Interpretatzeko eskaera

1. Arbitraje-laudoa emanda, bere jakinarazpena jasotzen den hurrengo biharamunetik hasita alderdiek bost egun baliodun izango dituzte Arbitraje-Gorteari honakoa eskatzeko:
 - a) Ondorengo hutsak zuzentzeko: kalkulu-hutsa, idazketan, kopietan, tipografian edo antzekoetan egondakoak.
 - b) Garbi edo gaizki ulertuta geratu den, edo gainerako laudoarekin bat ez datorren edozein kontzeptu argitzeko.
 - c) Laudoa osatzeko, omisioren bat falta dela ulertzen baita.

2. Laudoaren interpretazioa edo azalpena egiteko eskaera aurkeztuta, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak aztertuko du justifikatua bada, bestela ukatuko du.

3. Eskaera justifikatua bada, laudoa eman duen Arbitraje-Gorteari bidaliko dio, bere interpretazio edo azaltzea egiteko. Hori egin ezean, Batzorde Betearazleak ebazpena emango du interpretatzeko eskaera ukatuz, bidegabera edo beharrezkoa ez dela aintzakitatzat hartzen baita, eta horren aurka ezin izango da helegiterik aurkeztu.

41. Artikulua- Interpretazioaren ebazpena.

1. Arbitraje-Gorteari Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak jakinarazi dion interpretatzeko eskaera jasotzen den hurrengo biharamunetik, hasita hamar egun baliodun izango ditu ebazpena emateko.
2. Interpretazioa duen ebazpena protokoloan jasoko da notarioaren aurrean, eta egongo balitz, laudoa ere, eta alderdiei jakinaraziko zaie.

IV. KAPITULUA KOSTUAK

42. Artikulua- Arbitrajearen prozeduraren kostuak





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

1. Arbitrajearen errekerimendua aurkezten den momentuan, eskatzaileak 300 euro ordainduko ditu, edo Euskal Kirol Federazioen Batasunaren Zuzendari Batzordeak ezarritako kopurua. Hori ordaintzen ez bada, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiak ez du ebazpenik emango. Aipatu diru kopurua, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren gastu orokorreari aplikatuko zaiena, Arbitraje-Gorteak kontuak egiteko kontuan hartu behar duen lehen partida izango da.

2. Arbitraje-Gortea sortzean, Kirol-Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Arbitraje-Gorteak arbitrajeko prozeduraren kostuen gutxi gorabeherako aurrekontua ezarriko du. Aurrekontuaren arabera, Batzorde Betearazleak eskatu ahal izango dio Arbitraje-Gorteari alderdiei fondoen hornidura bat ordaintzeko, auzilariak diru kopuru bera ordainduko dutelarik. Alderdietako batek hornidura ezarritako epean egiten ez badu, planteatutako auzia ezeztatuko da, eta horrela ebatziko du Arbitraje-Gorteak.

3. Prozeduraren kostuetan kontuan hartuko dute:

- a) Artikulu honen 1 zenbakian aipatutako prozedura hasteko hasierako diru kopurua.
- b) Arbitroen ordainsariak eta beren gastuak behar bezala frogatuta, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak onetsi dituen Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren baremoen arabera.
- c) Laudoaren protokolazioak eta beraren interpretazioak edo azalpenak eragindako gastuak, egon badira.
- d) Jakinarazpenak edo komunikazioak eragindako gastuak.
- e) Frogen gauzatzeak eragindako gastuak, bereziki lekukoenak eta adituenak.
- f) Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren gastuei egindako kontribuzioa, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak onetsitako tarifen arabera.

4. Prozedura bukatzean, eta laudoa eman baino lehen, Idazkariak kostuen behin betiko zenbatekoa ezarriko du, eta Arbitraje-Gorteari jakinaraziko dio.

5. Kostuak arbitrajeko laudoak berak ezarriko ditu, eta hor alderdi bakoitzak ordaindu behar duena zehaztuko da, edo zein proportzioan banatuko diren.

6. Alderdien akordiorik ezean, bakoitzak kitatu beharko ditu bere gastuak, eta komunak eta Arbitraje-Gorteak zuzenean agindutakoak direnean kopuru bera ordainduko du alderdi bakoitzak.

7. Arbitraje-Gorteak auzilarien artean asmo txarra edo ausarkeria atzematen badu, komunak diren gastuak eta besteak egindakoak ordaintzea erabaki ahal izango du, laudoaren emaitza kontuan hartuz.





Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Tartekaritzaren Kodea

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Arau osagarriak.

1. Kide anitzeko organoen funtzionamenduari eta kode honetan aurreikusi ez denari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen abenduaren 26ko 30/1992 Legearen 23, 24, 25, 26 eta 27 artikuluetan organo administratiboentzat aurreikusitakoa ezarriko da.
2. Alderdietako batek nahiko balu jurisdikzioak parte hartzea arbitrajeko formalizazio juridikoan, kontuan hartu beharko da Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen 8. artikuluan aurreikusitakoa.
3. Kode honi laguntzeko Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legea aplikatuko da.

Bigarrena.- Kodigoaren aldaketa

Kode hau aldatu ahal izango du Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Batzar Orokorrak, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren Batzorde Betearazleak eskatuta, kode honen 9.5 artikulua araberak. Aipatu akordioa, bertaratutako asanblearioen bi herenen aldeko botoa izan behar duena, protokoloan jasoko da notarioaren aurrean eta Eusko Jaurlaritzak administratiboki onartu beharko du.

